

Arratia

"Bidean Gagoz"

9. zk.

2 0 0 7

ekaina

TOKIKO AGENDA 21aren gaineko informazio aldizkaria



Arratia



Ekainaren 5ean Ingurumenaren Nazioarteko Eguna ospatzen dugu Izotz Urtzeak ¿Gai bero bat?

Ingurumenaren Nazioarteko Eguna ekainaren 5ean egiten da urtero. Nazio Batuek mundu mailan ingurumenaren arloan arreta jarri, sentsibilizazioa bultzatu eta ekintza politikoak gauzatzeko erabiltzen duten tresna da.

Nazioarteko Urte Polarrari sostengua emateko, 2007ko Ingurumenaren Nazioarteko Egunaren lema da "Izotz Urtzeak- ¿gai bero bat?" Eta Aldaketa klimatikoa eskosistema eta komunitate polarretan sortzen ari den eraginetan eta honek mundu mailan izango dituen ondorioetan oinarrituko da.

Historia apur bat

Ingurumenaren nazioarteko eguna 1972an ezarri zuen Nazio Batuetako Batzar Nagusiak,

- 2007ko Ingurumenaren Nazioarteko Egunaren lema da "Izotz Urtzeak- ¿gai bero bat?" Nazioarteko Urte Polarrari sostengua emateko.

Estokolmoko ingurumenaren inguruko konferentziaren irekiera zela-eta. Egun berean, Nazio Batuek Ingurumenerako Nazio Batuen Programa sortu zuten.

Ingurumenaren Nazioarteko Egunak abagune aproposa eskaintzen digu gure ingurumenari buruz gogoeta egiteko, guk egin dezakeguna kontuan hartzeko, eta ondoren, gure ahaleginak denon ardura den Lurreko bizitza babestera zuzentzeko.

(Urrengo orrian jarraitzen du) →



Mundu mailako hondamendia gelditu behar dugu: klima aldaketa Poloetan izotz urtzeak eragiten ari da

Mundu mailako berotzea

I. Iraultza industrialetik gaur arte Lurraren tenperatura 0.75 gradu igo da. Azken 125 urteko 11 tenperatura altuenak 1990 ondoren gertatu dira, eta errekorra, orain arte 2005. urteak du. Berotze honen arrazoien gainean gehienak bat datoz: CO₂a moduko berotegi efektua duten gasen isurketak sortzen dute.

Izotzean egin izan diren azterketetan garbi ikusten da azken 600.000 urtean baino CO₂ gehiago dagoela egurtean. Eta isurketak hirukoiztu egin dira 1960 eta 2002a bitartean. 1987an bakarrik % 33aren gehikuntza jaso da.



Mende honetan planetaren beroketa 1,4 eta 5,8 graduko bitartekoa izango dela aurreikusten da eta bere eraginak jada antzeman daitezke:

- Artikoko kasko polarraren uzkurdura.
- Itsas mailaren ur-gordaldi azkarrak.
- Glaziarren urtzea.
- Geruza glaziarren urtze azkarregia ibai eta lakuetan.
- Ekaitz tropikalen intentsitate eta iraupen handiagoa.
- Urtaroak luzatzea latitude ertain eta garaietan eta landare eta animalien ohitura aldaketak.

Izotz-urtzea

Zientifikoak gero eta kezkatuago daude klima aldaketa bortitz batek korronte ozeanikoen murrizketa ekarriko lukeelako, Europa berotzen duen Golkoko korrontearena, kasu; eta euriaren patroiak aldatuko lituzkeelako, monzoiaren urtarokoak, kasu. Honek guztiak milaka milioi lagunaren elikagaiaren segurtasunean ondorioak izango lituzke. Zenbait klima ereduak uste dute mendea amaitu aurretik Artikoko uda garaian itsasoko izotz guztia galduko litzakeela, Hartz polarren biziraupena arrisku larrian jarritz.

Munduko mendi kate handietako glaziarren urtzeak ibaien ur horniketari eragingo dio. Esaterako, 2050. urte aldera Txinako glaziarren %64a desagertuko dela uste da. Txinako mendebalde lehorrean 300 milioi lagun bizi direla uste da eta horien biziraupena glaziarren urarekin lotuta dago.

Izotz-urtzeak itsas mailan gertatu diren ur-gordaldien erdiaren sortzaile dira, gehien bat Groelandia eta Antartikoaren izotz-urtzeak. Groelandian izotza azkarrago urtzen da sortu baino. Antartikoan, izotz plataformen hiru sekzio handi urtu dira azken 11 urtean eta plataformen glaziarren izotza asko mehetu dela ere ikusi da.

Hondamendia gelditzeko

Klima aldaketa hondatzailea gelditzeko era asko dago: energia eraginkortasuna hobetzea, energia berriztagarriak erabiltzea, esaterako, bioenergia, eguzkiaren energia, eolikoa eta geotermikoa; eta ikatzaren kontsumoa jeistea. Halaber, CO₂a bildu eta gordetzeko aukera ere badago.



Energia eolikoa

1995an instalatutako energia eolikoaren ahalmena 4.800 megavatiokoa zen. 2005ean kopuru hori 12 aldiz biderkatu zen, 59.000 megavatiokoa izatera heldu zelarik. Energia Eolikoaren Munduko Kontseiluak kalkulatu duenaren arabera 2050erako munduko elektrizitatearen herena baino gehiago haizearekin sortuko da.

Eguzkiaren eta uraren energia

Gaur egun milikoika etxetan jotzen dute eguzkira ura berotzeko eta gero eta etxebizitza gehiagok aprobetxatzen du eguzkiaren energia elektrizitatea sortzeko. Islandiako energia geotermiko eta hidroelektriko ugaria hidrogenoa sortzera bideratzen da erregai fosilak ordezkatzeko. Brasilen, azukrekanaberatik lortutako etanolak bertako gasolina behararen %40a ordezkatu du.

Zuhaitz landaketa mundu mailan

Australiatik Vietnamera, Keniatik Mexikora, pertsonak elkarrekin dira zuhaitzak landatzeko, horietako asko PNUMAren mila milioi zuhaitzen kanpaina, Planetarentzat landatu ekimenaren barnean egiten dira. Zuhaitzek klima aldaketa makaldu dezakete hazten ari direnean CO₂a xurgatzen dutelako. Gainera, kutsadura gutxitzen laguntzen dute, hirietan freskotasuna mantentzen dute, arreak babesten dituzte eta lurraren higadura murrizten dute.

ARRATIOKO BEHARGINTZAREN hitzetan... Ingurumenaren arloko prestakuntza teknikoa 2006-2007

Arratiako Behargintza eta Eusko Jaurilaritzaren ikuspuntutik begiraturik, ezinbestekoa da euskal herritarrok ingurumenaren aldetik gaikuntza teknikoa gara dezagun, gure egitekoak, profesionalak, lanekoak edo gizartearekikoak, ingurumenaren alde dugun konpromisoari egokitzeko.

Ingurumenari buruzko prestakuntza teknikoa oso baliabide eraginkorra da gizarte osoak ingurumenaren alde egiteko gaur egun duen konpromisoa betetzeko.

Aurten ere, Ingurumen-hezkuntzaren politika orokorraren esparruan, 2006-2007 ikasturtean ingurumen arloko prestakuntza teknikoan eskainiko diren arautu gabeko ikastaroen zerrenda aurkezten dizuegu. Ikastaroak ingurumenaren kudeaketan ardura duten profesionalentzat



nahiz arlo horretan laster lanean hasteko asmoa duten pertsonentzat izango dira, eta Eusko Jaurilaritzaren diru-laguntza izango dute.

- **Argibideak:** Arratiako Behargintzan
Telefonoa: 94-6317398.
- **Egiagtagiria:** Ikastaroetan parte hartzeko onartu diren Ingurumen eta

Lurralde Antolamendu sailaren eta ikastaroa eman duen erakunde arduradunaren egiaztagiri bateratua eta bakarria jasoko dute, baldin eta prestakuntza-jardueraren guztizko orduen %85 baino gehiago bete eta euren parte-hartzeagatik kalifikazio positiboa lortzen badute.

- **Behinbehineko hasiera data:** Ekaina.
- **Ikastaroa:** Ingurumenaren kudeaketako espezializazioa.
- **Antolatzailea:** Arratiako Behargintza.
- **Herria:** Igorre.
- **Lurraldea:** Bizkaia.
- **Orduak:** 100 presentzialak + 130 e-learning

GORBEIALDE Alkartearen hitzetan... Abelzaintza ekologikoa eta ekologiaren abelzaintza Arratian

Denok dakigu Arratian gure eskualdeko balore nabarmenetakoa, bai bertakoentzat eta baita kanpotarrentzat ere inguratzen gaituen paisaia dela. Aktibo honek duen balorea zaila da neurtzeko, ez da erraza paisaia batek izan dezakeen gizarte eragina eta eragin ekonomikoa neurtzea, baina zalantzarik gabe denok estimatzen dugu.

Gorbeialden uste dugu egoera horren "ardura" baseritarrena dela, izan ere, belaunaldiz belaunaldi gure lurrak zaindu eta landu dituzte, baturatzen euren kabuz ezagutzen dituzten irizpide zuzenak erabiliz, eta besteetan, teknika berri-zaileen aholkularitza jarraituz. Baina baseritarren zereginen artean abeltzainek larretan egiten duten lanean jarri nahi dut arreta.

Nork imajinatu ditzake Arrabako zelaia edota Gorbeialdeko beste gune batzuk sasiz eta sastrakaz beteta? Pentsatu al dugu noizbait gure mendien zati handi bat estaltzen duen "alfonbra" hori abelzaintza deituriko jardueraren ekonomiko baten ondorio dela?

Arratia punta-puntako eredu

Honi guztiari, batetik, gure abeltzainek aurreko belaunaldietatik jasotako ezagutza egokia gehitu behar zaio, eta bestetik, zientifikoari eskertu behar zaion teknika berrien ezarpena. Izan ere, gaur egun Arratiako lurrek larren erabilera ekologikoaren ereduaren barnean punta-puntako kudeaketa dute.



Baieztape hau egiteko arrazoiak ditut:

- Europako Batasunak zehaztutako UGM/ha.bat gaitzen ez duen karga kontrola egiten da larreen erabilera.
- Neguan larreak ganadurik gabe uzten dira, belarrari deskantsua emateko.
- Larreetan egindako hobekuntzak dira: beharrezkoa den lekuan sasi garbiketa mekanikoak egitea eta ongariak eta karea bezalako osagai mineralak botatzeko, beti ere Europako nekazaritza araudi ekologikoak onartzen baditu eta lurreen egin-

dako analitikak hala eskatzen badu.

Teknika hauek ahalbidetzen dute edozein ganadutegik (sistema ekologikoa erabiliz edo ez), kalitate eta prezioaren arabera elikagai merkeena erabiltzea, hau da, mendiko bazka.

Horixe da gure abeltzainek "paisaiari" egiten dioten ekarpena, gure seme-alabek utzi diguten mailegua errepestatzeaz gain: mailegu hori gure lurra, "amalurra" da.

Gorbeialde Alkartea, 2007ko maiatza.

OINEZBUSaren zerbitzu jarraitua Lemoan

2006ko Mugikortasun astean zehar Arratiako hainbat udalerritan **Oinezbusaren** zerbitzu berria jarri zen martxan. 150 eskolaume inguruk parte hartu zuten guztira, eta zehazki Lemoan 50 baino gehiagok.

Oinezbusa "oinezko autobusa" da, bere izenak dioten moduan. Bertan, umeak eskolara eramaten dira oinez etxetik gertuen duten paradiatik hasi eta eskolaraino, beti ere gutxienez pertsona heldu batek zuzenduta. Guretzat zerbitzu berria den arren Europako zenbait herrialdetan "walking bus" bezala ezagutzen da eta guztiz finkatuta dago, Britainia Handia edota Australian, kasu.

Eguneroko zerbitzua eskolaumeentzat

Irailean izan zuen arrakasta ikusita, Lemoako Udala zerbitzua berriro martxan jartzeko ahaleginetan aritu da baina oraingoan eguneroko zerbitzu gisa funtziona dezan.

Juan Bautista Eguskiza Meabe ikastetxearekin eta Lemoako Guraso Elkartearekin hainbat aldiz elkartu ondoren, joan den maiatzaren 14an hasitako **Oinezbusa** sistema tajutu zen. **Oinezbusak** bi linea ditu udalerraren bi gune ezberdinetarako eta bakoitzak Lemoako Udalak kontratatutako arduradun bat du. Arduradun honek txandaka aldatzen joango den guraso baten laguntza izango du eta denek parte hartu beharko dute. **Oinezbusa** goizero egongo da parada ezberdinetatik eskolaraino eta ordutegi intentsiboko egunetan baita eskola irteeran ere (datoren ikasturtean zerbitzuak izaten duen eskaeraren arabera baliteke arratsaldera zabaltea). Hasiera batean izena eman ez zuten umeek orain egiteko arazorik ez dute, egin beharreko gauza bakarra da **Oinezbusean** parte hartu nahi dutela esatea eskolako zuzendariari, oinezbusaren arduradunari edota Lemoako Tokiko Agenda 21eko teknikoari.

Oinezbusaren abantailak

Zerbitzu honek abantaila handiak ditu, batez ere gure seme-alaben osasunari eta garapenari begira.

- ARIKETA FISIKOA egunero egitera bultzatzen ditu umeak (ume aktiboek heldu aktiboak izateko aukera gehiago dute).
- BIDE-SEGURTASUNAREN ZENTZUA handitzen du umeetan oinezkoen gaitasunak ikasten dituztelako eta BIDE-SEGURTASUNA bera ere handitzen du eskolaraino doazen ibilgailu



eta egiten diren bidaien kopurua gutxitzen delako. Istripuak ere gutxitu egiten dira.

- GIZA HARREMANAK bultzatzen ditu eskolarainoko bidean umeek euren artean hitzegiteko eta lagunak egiteko aukera ematen duelako.
- Umeen ARNASKETA errazten du autoan joanda baino aire freskoagoa eta garbiagoa amasten dutelako.
- Azkenik, INGURUMENA zaintzen du kutsadura gutxituz tokiko ingurua hobetzen duelako.

Lemoako ekimena ondo badoa datorren ikasturtearen hasieran esperientzia Arratiako beste udalerrietara zabaltea aurreikusita dago.

- **Hasiera batean izena eman ez zuten umeek orain egiteko arazorik ez dute, egin beharreko gauza bakarra da Oinezbusean parte hartu nahi dutela esatea eskolako zuzendariari, oinezbusaren arduradunari edota Lemoako Tokiko Agenda 21eko teknikoari.**

Etxeko olio erabilia jasotzeko pote banaketa

Arratiako Udalen Mankomunitateak etxeko olio erabilia jasotzeko poteak berriro banatuko ditu etxeko hondakin "arrisku-tsu" honen birziklapen maila handitzeko asmoz.

Poteak olio bilketaren ohiko guneetan banatuko dira, hau da, hileko hirugarren astearte, ostiral eta larunbatetan; baita Arratiako udaletxeetan ere.

Gogoratu Igorreko Garbigunea martxan denetik olio berta utzi daitekeela, asteleheneetik ostiralera 09:30etatik 13:30etara eta 15:30 etatik 18:30etara eta larunbatetan 10:00etatik 14:00etara.



Arratiako Iraunkortasunaren II. Jardunaldietan zer?



Igorren maiatzaren 5etik 9ra bitartean, Arratiako Iraunkortasunaren Aldeko II. Jardunaldiak antolatuta dira. Jardunaldi hauek herritar guztiei zuzendutako egon dira eta helburua klima aldaketari buruz herritarren informazioa izan da: klima aldaketa benetan gertatzen ari den gauza dela eta horren aurrean bakoitzak bere jardueraren eremuan zerbitzu egin dezakeela azaldu nahi izan delarik.

"Una Verdad Incómoda" dokumental interesgarria

Al Goreren "Una Verdad Incómoda" dokumentalaren emanaldiarekin eman zituzten sarrera jardunaldiei. Dokumentala, doakoa, larunbatean eta igandean proiektatu zen Igorreko Lasarte Aretoan eta guztira 60 pertsona elkartu ziren hau ikustera. Bertaraturako batzuen hitzetan dokumentala oso interesgarria izan zen, eguraldi aldaketak ekar ditzaketen hondamendi eta arriskuak ohararazten duen mezu garbi bat baitakar.

Klima aldaketaren berri luze zabal

Astelehenean, maiatzak 7, Klima Aldaketaren inguruan hausnartzeko Xavier Caño, Klima Aldaketaren Euskal Bulegoko Koordinatzaileak; Sergio de Juan,

WWF Adenako bozeramaileak eta Iñaki Antigüedad, EHU-UPVko irakasleak klima aldaketari buruzko beren ikuspuntuak azaldu zituzten mahai gainean.

BEGak murrizteko Europako helburuak 2012. urterako %8 jaitsea da, 1990. urtearekin alderatuta. 2020. urterako aldiz %20 jaitsi nahi da, 1990. urtearekin alderatuta. Eusko Jauriaritzatik garaturiko Klima Aldaketaren Aurkako Euskal Planaren helburua 2012rako BEG % +14ra iristea izango da

Sektore ekonomikoak kontuan hartuta, BEGen isurketak eragiten dituen sektore nagusia industria da, ondoren garraio-sektorea eta azkenik energiaren sektorea. Horretaz aparte, lurralde Antolakuntzako politikak klima aldaketaren ara-

zoan erantzukizun handia dutela ere garbi azaldu zen. Bestalde, gaur egun dugun eredu sozio-ekonomikoak aldaketa erradikal bat eskatzen duela esaten da, ez baita inolaz ere jasangarria.

Energia berriztagarriak bultzatzeko beharra

Asteartean, maiatzak 8, energiaren gaia landu zen. EVEtik, 2005. urtean EAE mailan egindako energia eskaeraren %4,4 energia berriztagarriena izan dela azaldu zen eta 2010. urterako %12a izatea lortu nahi dela esan zen. Bestalde, energia berriztagarriak ezartzeko dirulaguntzak, finantziarioak eta desgrabazio aukerak zeintzuk diren azaldu ziren.

Energiaren erabilerekin lotuta, argiteria, berogailua, ur beroa, sukaldia, elektrotresnak, automobila, e.a. erabiltzerako garaian gure eguneroko bizitzan jarrai ditzakegun praktika onak azaldu zituen CADEMeko ordezkariak.

Egun horretako saioa amaitzeko Balmasedako Udaletik energia berriztagarrien inguruan eginiko lana azaldu zen, herri eredu garria, kontuan hartzekoa.

Mugikortasunean ohitura aldaketak egin

Asteazkenean, jardunaldiei amaiera emateko Mugikortasunaren gaia landu zen. Bertan gaian aditua den Jose Felix Basozabalek mugikortasun iraunkorraren inguruko hausnarketak egin zituen. Bere hitzetan, "garraio sisteman planifikazio intermodal bat faltatu izan da eta desplazamenduak errepideetatik trenbideetara bidali behar dira". Nahitaezkoa da garraiorako enfoko berri bat hartzea horretarako. Bestalde Arratiako esperientzia azaldu zuen Aitor Uriguenek mugikortasunaren diagnostikoan eta herritarren, arduradun politiko- eta udal teknikoaren proposamenetan oinarrituta. Arrasaten Ecodriving, edo gidaritza efizientearen esperientzia martxan jarri zen herritarren artean, eta horren inguruko bideo bat botu zen.

Bertaraturako batzuen hitzetan dokumentala oso interesgarria izan zen, eguraldi aldaketak ekar ditzakeen hondamendi eta arriskuak ohararazten duen mezu garbi bat baitakar.

Maiatzaren 8ko saioa amaitzeko Balmasedako Udaletik energia berriztagarrien inguruan eginiko lana azaldu zen; Kontuan hartzeko herri eredu garria da.

Mugikortasun iraunkorraren adituaren ustez "Garraio sisteman planifikazio intermodal bat faltatu izan da eta desplazamenduak errepideetatik trenbideetara bidali behar dira". Nahitaezkoa da garraiorako enfoko berri bat hartzea horretarako.